

ILLUNA EI DA OLERKIA

Itsuañen abotsa lez
zoria ez yaku bardin,
kezkati, etenkor baiño.
Poz-jario al zagoz gaur?
Biar malkoz intzatuko.
Jaio ta il, dantza ta illeta,
a aberats, bestea txiro.

Illun ei da poesia.
Nik ba-nenkian lendik be.
Poz-irria zail da azaltzen;
osoa ez yakulako,
ez ei gaitu barne ikutzen;
illuna, barriz, barnera
igarri bagarik sartzen.

Biotza, dan beste zabal,
erabil oi dot askotan;
etxat pozezko bertsoa
barrura gozatsu jausten;
gainbera samin-laiñoa
edur-luma lez datorkit,
jori baizen oparoa.

Iñoi, miñaren arilpe,
goiari ibil naz arnas-eske.
Iltzeak dagon txoriak
bizi-beroa nai leuke.
Illun-ingumak argia ames,
orduz lirauken argi-kusku.
Baiña biotzak esaustan:
«Ez min onen poza uxatu».

Igotz